


Bizkaitarrei Bizkaieraz

**ZAR**

374n. zenbakia • 2011 Iraila



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

**AKARREGI  
ZAPIRAIN,  
Jose Luis  
(1923-09-11-Lekeitio)**



**Erti Gotikua  
Bizkaian**



**Euskalerria  
edo Euskadi**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2011-2012 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

### 44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)



# ERTI GOTIKUA BIZKAIAN

Bizkaiko erti gotikua aztertzeko, lenengo eleizako gotikua ikusiko dogu eta gero errikoa.

Ainbat tokitan aurkituko dogu gotikua eleizearen barruan: Eleizak, lekaide-ibiltegi edo klaustroak, kurutzeak, irudiak, urre ta zidarrezko lanak eta margazkiak.

Errikoan: Gazteluak, torre-etxeak, arresiak, zubiak, arresi-ateak...

1200n. urte-inguruan Bizkaian ez egoan baserriak eta arrantzaleak baiño, dana eleiza baten inguruan, erri-batzarrak egiteko txupetal-arria edo bagarea eleizpean zala.

Ez da aitzu bear garrantzi aundia euki ebela oleak eta onein inguruan ikazgiñen txondorrak. Dana gero errota biurtu zan.

Aldi aretan garrantzi aundia izan eben uri-batuak edo billak, euren lege bereziakaz. Erregeak, batez be jauna zan erregeak, sortzen ebazan bere aginpidea Gernika-ko batzarretatik aske izan zeitekean, baiña

atxaki lez au artu eben: Baserrietan lapurren bildur aundia egoala eta biztanleak batu egin bear zirala. Ez zan ori lortu eta eskubideak lortzea be laster galdu zan uri oneik Gernika-ko batzarretara sartu ziranean.

Balmaseda izan zan lenengoa (1149) Orduña urrengo (1229), biak muga-arazoak bidertazeko, orreikaz Bizkaian buru zan Bermeo.

Geroago sortu ziran beste uri oneik: Otxandiano (1254), Durango (1273), Lanestosa (1287), Plentzia (1299), Bilbao (1300), Portugalete (1323), Lekeitio (1325), Ondarroa(1327), Mungia ta Larrebetzu (1372) Gernika, Elorrio, Ermua, Markina, Villaro, Ugao-Miraballes, Rigoitia, ta Gerrikaitz.

Baiña erriak batzea ez zan lortu eta uriak eurak be Gernika-ko arauetara makurtu ziran.

Erti gotikuaren sorreran euren garrantzia dauke uri oneik.

Dana dala, ez aitzu Bizkai osoan 1200n. urtean 50.000 bizkaitar baiño ez zirala bizi.

## 1.- ERTI GOTIKUA ZER DAN.

Erti-tankera oneri “ojival” be esaten jako, arkuaren erpiñan begi-antza daukalako.

XIII gizaldian amaitu zan erti erromanikua eta orduan asi zan erti gotikua, naizta gure artera berandutxuago eldu aldakuntza ori.

Erti gotikuaren beste ezaugarri bat “arbotantea” izaten da: Ageen kapoko aldean albo-indarrari eusteko ezarten jakon oin bat da.

Ateko arku aundi batek barruan dauzan beste arku batzui bira-arkuak edo arkiboltak esaten jake eta orrean bitartean sarritan orri apaingarriak agertzen dira eta iñoz agertzen dira, baita, giza-irudiak, aingeruak, eta monstro edo mamuak. Orrean sortzen dira gotikuaren ate ain ederrak.

Eleizearen sabaia arku begidun kurutzatukaz egiña da, baiña aldakuntza askogaz.

Torreak barrenetik asita leio begidunak daukaz eta goian orratz-itxurea eta kurutzea.

Ibiltegi edo klaustroak be eukiten dabez sarritan eleiza gotikuak.

## 2.- ERTI GOTIKUA BIZKAI-KO ELEIZETAN

XIV, XV eta XVI gizaldiak dira gure artean gotikuarenak. Sabai orrean azpian egiten eben zin jaunak eta erregeak.

Ona emen Bizkai eleiza gotikurik ezagunenak:

- Bilbao-ko Santiago Gotzain-eleizea: Bizkaia-n daukagun gotikurik ederrena dogu.

Amabost eleizatxu eta bateo-lekua dauz barruan. ”Aingeruaren sarrerea” ibiltegi edo klaustro-rako bidea da.1885n. urtean Atxukarro etxegiñak torre gotikua egin eban.

- San Anton egiten asi ziran, Santiago amaitu baiño lenago, len gaztelua egoan lekuan.1433n. urtean egin zan emen lenengo mezea.

Erti gotikua da: begidun arku ederrak, triforioa eleiza osoan, sabaia be gotikua. Azkenengo arkuak, altara-aurrean, puntu-erdikoa da, baiña leioak be gotikuak dira eta leio margotu bi oso ederrak. Kanpotik ber-jaiotzaren tankerea da nagusi. eta kanpai-lekua barrokoa da.



- Orduña-ko Andra Mari: XIII gizaldikoa zan lengo eleizea eta XV gizaldian barriztatu zan gotikutankeaz. Santutegi edo erretablo gotikua dauka. Sei eleizatxu alboetan. Kanpotik ez da ain ederra.

- Balmaseda-ko San Seberino: Atean arkibolta ederrak, errosetoi ederra, eta leio gotiku ondo agiriak. Torrea barrokoa da.

- Bermeo-ko San Frantzisko-ren klaustroa: Oraintsura arte azoka-leku biurtuta egoan era lotsagarrian, orain ederra da eta ederto dago.

Bizkaia-n zarrena da eta gotiku garbi bakarra.

- Lekeitio-ko Andra Mari: XV gizaldikoa, Bizkai-ko gotikutrik ederrena. Barruko egon-lekuak amabi zatitan dagoz.

Sabaia begidun arku kurutzatuak dira. Aurrean iru leio gotiku daukaz eta eleiza osoa argitzen dauan leio nagusi edo klaraboia.

Ate nagusia begidun arkua da 9 arkiboltagaz, gainean frisoa triglifoa ta metopakaz eta amasei irudigaz. Dana oso ederra.

Retabloak triforioa estaltzen dau eta urretua ta ederra da. Irudiak goitik beera Andra Maria-ren bizitza osoa dira.

- Ziortza: Bizkaia zan lekaide-bageko euskal lurralde bakarra, baiña etorri ziran lekaideak Ziortza-ra gure Patxi Elgezabal buru zala. Oliva-ko Zizterarren lekaide-etxetik.

Lenago kolejiata zan, gotzain-etxe baten antzekoa baiña kanonikuak eta abata ziran biztanleak bertan, ez lekaideak.

1082n. urtean agertzen da Donemiliane-ko agiritan. 1379n. urtean abata dago eta araudia ezarten dautso Kalagurriko Gotzainak. 1759n. urtean itzi zan araudi ori eta 1514n. urtean X Leon aita santuak Irusta ospetsua izendatu eban abat eta gero beste 15 abat isil izan ziran. 1851n. urtean konkordatuak desegin eta parroki lez geratu zan.

Orain dana dago barriztauta.

Gotikuak dira: Eleizea (XV), ezkerreko eleizatxu bi (XVI), laudak, sabai kurutzatua.

- Zin eleizak: Zin egiteko jaun barriak egin bear eban bidea au zan: 1º Bilbao-ko Tenderia kalean, 2n. Larrabetzu-ko Goiko Eleizan, 3n Aretxabala ganean (Bizkargi-parean) zugatz eder eta aundi baten azpian, 4n. Gernika-n eta 5n. Bermeo-ko Eupeme Deuna-ren eleizan.

Ziña egiteko jauna altara aurrean egoten zan, esku bat altaran dauala, aurrean abadea jantzita Gure Jauna eskuetan ebala eta orrelan jaunak egiten eban zin gure oiturak... zaintzeko.

Larrabetzu-ko Goiko eleizea gotikua da eta orantsu gauza ederrak eta arrigarriak aurkitu dira orman margoztuta.

Bermeo-ko Eupeme Deuna XV gizaldiko gotikua da. Mendoza kaerdinalaren illobia dala diñoena dago barruan.

- Beste eleiza gotiku batzuk: Erandio-ko Andra Mari, Plentzia-ko Magdalena, Mungia-ko San Pedro (orain atea baiño ez dago), Ondarroa-ko Andra Mari.

Gotiku berandukoak dira: Begoña, Bilbao-ko Gizakundearen eleizea, Portugalete-koa, Gueñez-koa, Deustu-ko San Pedro, Xemeingo Andra Mari, Elorrio-koa, Gernika-ko Andra Mari, Abando-ko San Bixente, Durango-ko Andra Mari.

- Kurutze gotikuak: Durango-koa, Elorrio-koa.

- Irudiak: Ez geunke ikusi bagerik itzi bear Bilbao-ko Gizakundearen Plaza-n daukagu eleiz-museoa, XVI gizaldiko etxe gotiku baten: Ugari ikusiko doguz urrez et zidarez egindako bitxi gotikuak, eleiz jantzi gotikuak, margazki eta irudi asko tankera onetakoak. Or agertzen dira euren barretxua egiten dabela Andra Mari gotikuak. Eskeutan umea jolasten, eskoian lore bat. Or dago 1360n. urteko Andra Mari bat Morga-koa. Eta beste asko.


### 3.- ERTI GOTIKUA ERRIAN:


Errietako arresien atek, izaten dira gotikuak, baita gaztelu batzuk be (Butroi, Arteaga, Muñatones, Galdames-eko Loizaga...

Torre-etxe gotikuak be ugari daukaguz: Malpika (Zamudio-n) Billela (Mungia-n), Abellaneda (Balmaseda-n), Terreros (Zalla-n), Salzedo, Santxosolo, Iburguen, Oxirando, Likona (Ondarroa-n), Barroeta (Xemein-en), Aranzibia (Berriatu-n), Torrea (Izurtza-n), Torrea (Etxaburu-n), Torrea (Akeuri-Zeanuri-n), Muntxaraz...

Ba-daukagu be zer erakutsi gure Bizkaiko eleiz naiz erri Erti-gotikuan.

† OLAZARtar Martin-ek





# AKARREGI ZAPIRAIN, Jose Luis

(1923-09-11-Lekeitio)

-Pasarte batzuk aztu egin jakoz pilotagaz lotuta bizi ebazan urteetan, baña, ederto gomutatzen dauz, dan-danak, detallez-detalle.

- Nire emaztea, Eibarkoa zan, eta Lekeition beraniantia zan, “un bombon”. 19 urtekez ezagutu neban. Ondartzan be alkar ikusten giñan beti, bai ta amaitu be.

- Bai, orduan, lantzen bein etortzen zan partiduak ikustera.

- 25 urtekez eskondu nintzan.

- Estei bidaian, lenengo Madrillera joan giñan. Astebete edo, egon giñan.

- Baiña ostean, Bartzelonara. Pilotarako zaletasun aundia egoan Bartzelonan. Jokatzeko eskatu eustien eta orixe egin neban. Ango iru afizionatuen kontra jokatu neban, eta irurak irabazi.

- Ederto pagatu eustien. Partiduen propaganda ederra egin eben. Tranbian “Acarregui juega contra...” iñoen panelak ipiñi ebezan.

- Iru seme-alaba izan dodaz.

- Partida dexente jokutzen neban kanpoan. Gaztetan, elizako pareta txikien, eta dorrearen kontra ibiltzen nintzan Lekeition.

- Txiki-txikitatik gustatu jat frontoia. Gomazko pilotak egiten nebazan orduan, kaladan kaladan.

- Bizikletaren gomak artu, tirakaz egin potroa eta gero lanagaz betetzen neban.

- Zenbat egiten nebazan... batek ba al daki !

- Lenengo urtetan Markiñera joaten nintzan entrenatzera. Eskularrua larregi estutzen neban, eta alako batean, koskorra urten jatan eskumako eskuan.

- Asko aundituten jatazan eskuak. Gero, profesionaletan be bai.

- Egin izaten neban nai neban moduan pilotan.

- Bizikletan 16 kilometro egiten nebazan joateko eta beste 16 bueltatzeko. Astean bi bider, euria izan naiz txingorra egin.

- 16/17 urtekoa izan nebazan orduan. Iru genbiltzan entrenatzen.

– Lekeitioko frontoia eragiña zan. Busti-busti egi-ten zan euria egiten ebanean. Egun askotan bustita egoten zan.

– 18 urtekez asi nintzan profesioaletan jokatzan. Asiera txar-txarra euki neban eskuakaz.

– Atzelari asi nintzan eta aurrelari amaitu. Niri aurrean jokatzea gustatu jat, baña sei illabete egin nebazan atzelari. Bein empresako buruari esan neutsan aurrelari jokatu nai nebala. Froga egin eustan, gustatu, eta alantxerik asi nintzan aurrelari.

– Sarritan agertzen nintzan periodikoetan: ¡AKA-RREGI DELANTERO !

– Bai, 20 urterako joko aundia artuta neukan. Sasoi aretan Gallastegi eta Atano III, ziran aundienak.

– Finala Eibarren jokatu neban Atano IIIIn kontra. 18/4 gindoazan, Atano irabazten. Sake librean, onetan onena zan. Nai eban lekura eta nai eban modura botatzen eban pilota: eskumara, luze eta motz.

– 12 tanto egin ebazan jarraian, saketan. Gero neuk artu neban jokoa, eta beste 12 egin neutsozan illaran. Meritu zan gero, aundienari segidan ainbeste tanto egitea !

16/18 ipiñi neban markagallua sakea artu eustan arte.

– Lenengo lauterdikoa, ostera, neuk irabazi neban.

Lau pelotariak artu genduan parte. Laurak aurrelariak giñan: Ogeta, Bolinaga, Barberito eta neu (lauak).

– 1.953 an Donostian jokatu neban Bolinagaren kontra. Irabazi egin neban.

Garai artan partiduko 1.500 peseta irabazitakoa naz. Asko zan ori, orduan, obreru batek lau peseta irabazten eban egunean.

\*Ezker aldetik eskumarantza: Migel Gallastegi, erdiko epailletzat aukeratua, Atano III ta Akarregi, 1946 en azaroko 11n banakako azken jokaldia asi



baño lenago. Atano III ak 22-16 menderatu eban Akarregi.

\*1926tik 1948ra Atano III izan zan eskubanakakoren arteko txapelduna ta pelota jokoa erabat barriztau ebana. Sakez eta ezkerrez jotzeko era bereziaren bidez ia garaitu eziñekoa biurtu zan.

\*"Ausarditsua" gazte izanarren Mondragonesegaz neurtzeraño ausartu zana.

\*Alkar arteko lenengo jokaldia "Astelen" ean ospatu zan 1926.02. 15 an.

\*Biak 3garren laukitik atara eben, Mondragonesek eskumakoa erabilliz..

\*Araudi ezagaitik oikoa zan lenengo jokaldian titulugaiak eskubika jokatzea eta txapeldunak eskumakoakaz.

\* Titulu gaiak irabazi ezker, bigarrenengo baten jokalaria biak esku biakin jokatatu eukien eta titulugaiak galduezkero deskalifikatuta gelditzen zan.

\* 1926go azillaren 7an Astelen frontoian igarren jokaldia ospatu zan, Atano IIIak Mondragoneseri 22-12gaz txapela kenduz.

**Agustin Arrien**  
(*"Hitzatik 'artuta"*)







# EIDER

Ikusi daigun zer esan gure deuskun EIDER izenak. Berez Islandia lurraldean bizi dan ata baten izena da. Baña askotan jasoten dan lez izen ori arean aldatuz “edredoi “ berbeagaz ezetuten dogu. Eta da neguko otza kentzeko osatuten dauen jantzia. Batez be oian estalki berogarri moduan erabilten dana.

Dalako “edredoiia” ata nordikoaren lumatxa bigunegaz betetako sakel edo boltsakaz egiten da eta berotasun neurtuan irauten dauena. Izan be udabarriri millaka ata “eiderrak” agertuten dira Islandiako lur otzetan maitasun dantza eginda gero legorreko belardietan errute ostean arrautzek berotuteko abi gozoak atonduz beraien lumatxagaz. Lumatxa ori da baimena daben islandiarrak abian jarritako ata amaren azpitik eskuratuten dabena, belar agorraz ordezkatu ta normaltsunez bero lanean jarrai dagien. Lumatxa bitxi preziatua batu ostean munduaren zear saltzen dabe negurako edredoiak egiteko.

Lenago eider atak askotxu baziran ainbat lurraldetan gaurko egunez sano gitxitu dira, Islandian izan ezik. Egia esateko islandiarrak ondo zaintzen dituzte, egazti bereziok erriaren onerako diralako. Txalogarriak olan jokatuten daben erritarrak. Alegin gitxigaz be asko egin leikela adieraziz mundu guztira izen ona ta mesedea zabalduz.

Autortu bear dogu jatorrizko edredoiak galestiak izanaz, malla apalagoan osatuten diranak be aurki daitekezala benetako lumatxaren antzekoa erabilliz. Olangoak, akrilez edo artifizalezko gaia daroadie berotasunean eta osasun arloan kalitate obenetakoak ez izan arren.

Neguan beti be ondo dator, beroari bideak zabaldutea.



# Euskalerrria edo Euskadi

## “Berezko sorterri edo aberria da” (VII)

Eleiza katolikoaren agintaritzak, Frantzia, Gaztela ta Aragoi-ko erregetzak, maltzur ta guzurrezko alegin asko egin eben Nafarroa-ko erregetza ezeztutea lortu arte.

Lortu eben baiña, Nafartarren euskal-nortasuna makurtu edo ezereztutea?.

Ez !!.

Orain, guazen ikustera zer gertatu zan Bizkaiko Jauntzagaz, jakin daigun zer eta zergaitik egon ziran aldakuntz ezbaridiñak, Nafartarren erregetza 1.512ko urteraiño, eta Bizkaia bere Jauntzaren jabetasunean 1.876ko daren borroka amaituarte iraun egien.

### EUSKALERRIAN BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA:

Gure Euskalerriko Batzar-Nagusiak, euren Berezko-Legearen antolamenduan<sup>(1)</sup> zaldikatuta etorten ziran askatasunezko Batzar-Demokratikoen jabe-dunak ziran.

Baiña, erlijioz ta jaurkintzan Europa-ren katolikotasunezko ezarpeta ikusita, Bizkaitarrak Nafartarrak lez beartuta agertu ziran beste aukerazko antolakuntza bat sortzea, eta Europa-ren erri-artean erri-lez bizitzeko, errege jauntza-ren antolamenduan ezartzea erabagi zan.

Ez zan egon beste aukerarik, eta nai-ta, errege-jaun antolamendu ori beti, Batzar Nagusiaren agindu-pean ezarri: “Griego-en jakintzan, Erromatar Kaizar-Legedian eta Kristau Katoliko Sakratuaren” antolamenduzko baldintzatan ezarri bear genduzan nai-ta nai-ez gure antolamendu barri orreik.

Nafartar erregetzan sortu zan antzera, zelan ezkondu baiña: “Griego-en jakitza, Euskalerrriaren berezko askatasunaren oitura eta Kristautasunaren Demokrazizko aolkularitza”, “Erromatar Kaizar-Katoliko Sakratuaren menperatzaille legediakaz?”.

### BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA:

838tik 882ko urte bitartean Asturias ta Leon-eko errege IIIIn Alfonso<sup>(2)</sup>, borrokalari sutsu eta aundi edo magnoren izen goitikoagaz ezagutua, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren beko-alderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabalkuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko prestatzen asi zan.

Araba-tik asi zan IIIIn Alfonso, eta Arabarrak euren jaun Elion-egaz asarratuta egon ziralako, IIIIn Alfonso-k Elion kondea arrapatuta, Araba, borroka barik eskuratu eban.

(1) JAINKOA ta LEGE-ZARRAK. (2) IIIIn Alfonso 838-912n urte bitartean bizi zana.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan. Gaur baiño askoz aundiagoa izan zana, Sartaldetik asita Kastro-Urdiales eta Mena-ko ibarrak bizkaitarrak ziran; Sortaldetik, Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurak; eta Eguerdi edo Ego-aldetik Aramaiona eta Ayala-ko ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonso-k beren bigarren seme Ordoño-ri deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio ta Luxaondo-ko<sup>(1)</sup> bidetik, Bizkaia-ra sartu zan.

Bizkaia-k, Durango-ko Jaun Eztegiz-tar Santxo-ren agindupean ipiñi ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoño-ren gualosteari Padura-raiño sartzen itxita, bertan birrindu ebazan Alfonsok ekartzen ebazan gualozte indartsu orreik.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek Ayala-ko Gorobel menditik goiko mendietara igon ebenean, jakin ebelako Euskaldunak Bizkaia-ren Luxaondo-ko errian dagon “Malato” zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, “A SALVO SOMOS” esan eben, eta orregaitik esaten jako lurralde orreri “Tierra Salvada”.

Padura-ko erriari ortik aurrera ARRIGORRIAGA esaten jako, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Ordoño, borroka orreitan il zan, eta beren gorpua Arrigorriaga-ko eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegiz-tar Santxo be bertan il zan, eta beren gorpua Durango-ko Tabira-n San Pedro-ko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaroko 30ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkai-ko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzeta.

## BIZKAIA-ren LEENENGO JAUNA:


Durango-ko Jauna eta Nafarroa-ko erregearen ordezkoa izan zana Eztegiz-tar Santxo il da, Bizkaitarrak euren Batzar-Nagusiaren lege-jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaitzeko bearkuntzan agertuta, gual-buru ta epaillea aukeratzeko presatzen asi ziran.

Busturia-ko gazte bat borroka orreitan egin-ebena-gaitik aukeratu eben.

Abizenez Lope euki ebana, eta bere amaren bidetik Eskozia-ko erregearen bir-seme edo billoba zana.

Eztegiz-tar Santxo-ren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaia-ren leenengo Jauna, Jaun Zuria-ren izenagaz<sup>(2)</sup> ezagutu, eta 909an il zana.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa ta Araba-gaz batera Nafarroa-ko erreñuagaz alkargo baten, 1.224garren urterarte iraun ebana.



(1) Luxaondo = Luyando. (2) 888.



Eta ez españatarrak esaten daben lez Bizkaitarren Askatasuna, Euskal-Askatasuna, bere izkuntza beste antziñaukoa dalako.

Espainola-k ez dabe esaten Bizkaitarrak ez giñela iñoz laterritu?. Or, nun dagoen berezkotasunaren Estadu edo Laterria.

## **BIZKAI-ko BATZAR NAGUSIA-ren BALDINTZAK, JAUNA-kin ALKAR ADITZEKO:**

Bizkaitar Batzar-Nagusien artekari lanak egin egiazan, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak: a) Gudal-buru izateko, b) Zuzenbidearen buru-nagusia izateko, eta d) Bizkaia-ko errigizartearen ondo-rezko lur zabalak zaintzeko.

Eta Jauna-ren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain aalmen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, Bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia<sup>(1)</sup>, itzalgarritasunean<sup>(2)</sup> ezarri egian emoten eutselako.

Orregaitik, “Erabakitasunean, Egilletasunean eta Lege-egilletasunetik apur-bat baiño bakarrik ez

eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra Errrian egoala erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar-Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan.

Beren gauzatarako izaten zanean eta Gudarako gizonen laguntza bear ebenean, gure Batzarra beartuta geratu zalako bere guda-taldea gure-mutillakaz osotutea, beren gauzatarako izaten zanean, aurretik ordaintzeko beartuta.

Gure jauntza Gaztelako erregeen eskuetan geratu zan ezkeroztik aurrera, Euskaldunak baldintza orren erruz, beti ibilli gara borrokan gure artean.

### **Zergaitik?.**

Europa-ko edestian, joko bi izan diralako batera etorri diranak, eta beti sortu diran arazoak Europarenak izan dira danak, ez berezko errigizartearenak, onen arazoak beti izan diralako Europa-ren batzangotasunezko asmakuntza bidetik

Eta Euskaldunak ez giñelako konturatu, Europak Aita Santuaren aolkularitzagaz, kaizar sakratu baten agindupean batzangotzeko borrokan ibilli giñan.

(1) antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

Or ikusten da, Europa-ko aolkulari nagusiaren maltzur jokia, berezko errigizarteari sekula ez eutsolako esan zelako jokoetan ibilli zan.

Eta joko orren guzurra, apaiz, lekaide-lekaime eta erromako eleizak daukan goitik berako agintaritzaren lan bitartez agertzen dan gezurtapenetik, gaur errez ikusi leiken gauza da.

Apaiz lekaide-lekaimeak euren errikoakaz, beti egon diralako Jesus-en esanakaz Jainkoa-ri begira, eta apaiz-buru<sup>(3)</sup> ta gotzaiña maillatik gora, mundua katolikotzeko asmatu zan batzangotasunari begira.

Euki dogun sakonezko sinismenean, nor konturatu eleiz agintariak sasi-jainkotasunezko jokoan ibilli-ko ziranik?.

Or daukagu Jainkoaren beste froga bat, Bere Legearen agerbidez, gure baitak argitan kokatzen dirala, eta ez dauskuela bakez izten, bere senean kokatu arte.

Orregaitik Gaztelako erregeak, Bizkaiko jaun lez euren gauzatan ibillita, euskaldunak borrokatzen giñan gure artean.

Eta geien Aragoiko ta Nafar errege IIn Juan eta bere seme Fernando katolikoagaz, auek orduko Aita Santuakaz batera, egi guztien muga gaiñetik, guzurrezko jokoan ibilli ziralako.

Bizkai-ko Batzar Nagusiak Euren Jabetasunean, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintzako agintaritzatik?:

Batzarrak, almen guztia eukan Jaunak kentzeko, ziñez ez ba-ebezan artzen Batzarraren agindutako baldintzak, eta edo ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba-ebezan eukiten.

Bizkai-ko Batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

## PASE FORALA ZERGAIK SORTU ZAN?:

Gure ordezeko batzar-kideak antziñatik konturatu ziran, euki genduzan Jaun-errege Gaztelar orreik azpikeriz, Iribilduak iraspenduten asi ziranean,



(3) Apaiz-buru = Abad, o, superior de una colegiata.



Euskalerrria kolonizetan ibilli zirala, eta geiago, gure jauntza 1.379an Gaztela-ko I Juan<sup>(1)</sup> erregearen eskuetan jausi zanetik.

Gure ordezkariak orregaitik, Arazo Barrieri, Neurri Barriekaz aurre egiten arduratu bear zirala konturatu ziran, eta antziñatik lege-atal lez euki eben Pase Forala sortu eben.

1.406an Gaztela-ko III Enrike Gaxoa<sup>(2)</sup> il zanean, gure jauntza, urte-bi bete-barik euki eban IV Juan-en<sup>(3)</sup> eskuetan jausi zan, eta Katalina ta Fernando beren aita-amaren ordezekoak egiten egon zirala, gure Lege-Biltzarkideak beartu ebazan gure Foru-ai ziñ egien.

Eta Juan berak be, ziñ egin bear eutson adiñekoa biurtu zanean.

Baiña denboraldi oneitan Gaztela-ko erregeak "Pase Foral" a kendu gurean ibillita, Bizkaitarrak

asarratu ziran, eta Jaunak, arrazoia eukiela ikusi ondoren, 1.452an Uztaillaren 21ean Gernika-ko zuaitz-pean egingo zan batzarrean, Bizkaitarrak euki ebezan oiturazko eta aukerazko-legeak idatzi egiezala esan eban:

"Que cualquier carta que el Señor de Vizkaia die-re contra Fuero de Vizcaya, fuere obedecida y no cumplida".

Eta alan idatzi zan Errigoitiko Santa Maria Eleizbarrutian, Foruko leenengo liburuan.

1.526an gure legegilleak, kontu aundiagoa euki eben Foruak barriztu ziranean: "PASE FORALA" ren gora-beran, gure Bizkai-ko Jaunaren ulermenak ez egian zalantzarik euki.

Eta alan diño barriztutako Forua-k bere XIgarren legezko I izen-buruan. Otro si dijeron: "Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualqui-

(1) Juan I de Castilla (1.358-1.390). (2) Gaxoa = Enrike III (1.378-1.406) el doliente. (3) Juan II de Castilla (1.405-1.454).

era carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, oser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizcaya, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida”.

Bizkaitarrek, euren lege-gintzaren iraspenak era orreitan oiñarritzen ebezalako, mende-gabetasunaren jazarraldiak aurrera eroateko eskubide osoagaz agertu ziran.

Beste aldetik, Isabel eta Fernando katolikoak gure Foruekatz egin ebena ikusi bear dogu, ortik aurrera Austriatar guztiekatz egin zanaren adierazpena dala, eta gure Foru-Jauntzagatz 1.876ko urterarte irauteko.

## 25gn. JAUNAK, ISABEL ta FERNANDO KATOLIKUAK:

1.469an Urrilla-ren 9an, Gaztela-ko I Isabel<sup>(4)</sup> eta Aragoi-ko II Fernando<sup>(5)</sup> Balladolid-en ezkondu ziran.

1.473an Irailla-ren 15ean Bizkaitarrek, Gaztela-ko I Isabel eta Aragoi-ko II Fernando-ri, eskutitz bat bialdu eutsen esanez: IV Enrike-ren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, euri emoneko itzagatz, maltzurtasunezko jokoan ibiltezan gizonarekatz.

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatze-ko: Lenago danak ilko zirala, eta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agin-  
dupetik kanpo geratu baiño len, esanda.

1.473an Urrilla-ren 14an, IV Enrike il orduko, I Isabel-ek Bizkaitarrai eskutitz-bat bialdu eutsen, Bizkai-ko Foru-Legearen askatasunak baieztatzen ebanak.

1.474an Abendua-ren 11n il zan IV Enrike, I Isabel-en ugaz-neba.

1.474an Abendua-ren 12an, IV Enrike-ren il-otoizketatz egin ziran.

Eta 1.474ko Abendua-ren 13an, Fernando Aragoi-en egoala eta Isabel Segobia-ra joanda, gortearen agin-  
duz<sup>(1)</sup>, bertan izendatu eben Gaztela-ko erregeña.

1.475ean Portugal eta Frantzia-ren aurka egin ebe-  
zan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak beti lez, Isabel ta Fernando-ri laguntzen.

1.475ean Irailla-ren 20an Burgos-etik Fernando-k, irain-ordeko<sup>(2)</sup> agiri bat bialdu eutsen Bizkaitarrai, IV Enrike-k Judaseko<sup>(3)</sup> izenagatz zelakotu ebazalako. Emen, ez ete dogu Franko gogoratu bear?.

Eta emendik aurrera Fernando ta Isabel-ek, bial-  
tzen ebezan eskutitz, agiri, norberaren agiri, lege



(4) Gaztela-ko I Isabel 1.451-1.504. (5) Aragoi-ko II Fernando 1.452-1.516.

(1) Ekintza orregatz, zarratu egiten ebazalako Aragoi-ko II Fernando eta Juana “La Beltraneja”-ren eztaibadak Gaztelako erregetzaren eskubiderako. II Fernando bera be, Gaztelako erregetzaren odoletik etorten zalako, eta Aragoien neskatz, debekatuta euki ebalako errege-  
tzara igoten. (2) Irain-ordeko eskutitz = carta de desagravio. (3) Judaseko izena = traidores.



berezietan, eta albalaeko<sup>(4)</sup> idazkiaren buruetan: “Muy Noble è Muy Leal Condado” ipiñi egiazala agindu eben. Ori ta geiagoren merezimenduak daukiezelako Bizkaitarrak.

Fernando-k au esanda urrengo egunean, Bilbako Iribildua: “Muy Noble y Muy Leal” izendatu eban.

1.475an Uztailla-ren 7an, errege katolikoak Tordesillas-etik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik-kanpoko serbitzura joan bear izan ebenean, eurak Foruak agintzen eban lez egin bear ebela, au da, erritik urten orduko soldatak ordaindu.

1.475an Uztailla-ren 27an Toedesillas-etik, errege katolikoak beste agindu bat emonda: Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren serbitzuak lurrian egitera beartu, Foru-Legeak debekatu egiten ebalako.

1.476an Uztailla-ren 20an Fernando Bilbo-ra etorri zan Foruai ziñez itz-emoteko Isabel-en ordeztu, eta Bilbao-ko atean ziñ eginda, Larrabetzu-ko San Emeterio ta Zeledon ziñ-egiteko Eleiza-ra joan ziran.

Eta 1.476ko Uztailla-ren 30ean Gernika-ra elduta, Bizkaitarrak, Antigua-ko Santa Mariaren eleizan egon zirala, Fuegoak ziñ egiazala eskatu eutsen, eta Fernando-k orretarako etorri zala erantzun ondoren, erregeñagaitik-be ziñ egiten ebala, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fuegoak autsi, ezereztu edo oinkatuko esan eutsen.

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zantzez, Fernando, Gernika-ko Zuaizt-pean dagon arrizko alkian ezarrita, beren eskuak muinkatu ebezan.

Eta askenez, Bermio-n ziñ egin eban.

1.476an Irailla-ren 25ean, Fernando-k agindu eban, Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorrrak gaitik.

-Euskal-Berbea, egiaren aintzakotzat euki ebalako?. Gaur eta beti, Orejatar Martzeliño-k bardin esan dau.

(4) *Albalaeko* = *cédulas reales*.



1.474ko Abendua-ren 13an Isabel katolikea erre-giña izendatu orduko euki eban lenengo alaba, Isabel izendatu ebana, eta Portugale-ko erregeagaz ezkontuta 1.498an il zana.

Bigarrena mutilla izan zan, Juan-en izena ipiñi eutsoena, eta 1.497an Urrilla-ren 4an il zana.

Irugarrena Juana izan zan Zoroa deitzen jakona, Alemania-ko Kaizarren seme Felipe Ederragaz ezkontuta.

Laugarrena, Maria, Isabel bere aizta il zanean, Portugal-eko errege bere koñatua zanagaz ezkontu ebana.

Eta bostgarrena Katalina, Ingalaterra-ko Printze Arturo-gaz ezkontu zana, eta alargunduta, onen anai VIII Errike-gaz ezkontu zana.

1.483an Irailla-ren 5ean, Isabel-be Bilbo-ra etorri zan, eta Tenderia-ko ateetan Fuegoai ziñ emon eutsen.

1.483ko Irailla-ren 8an Isabel, Portugalete-ra joanda, Otxoa ta Ortiz de Montellano etxean, ostera Fuegoak zindu ebazan.

1.483ko Irailla-ren 16an Larrabetzu-ko San Eme-terio ta Zeledonioren eleizan ziñ ebezan Fuegoak. Eta Irailla-ren 17an Euskaldunentzat Saindua dan Gernika-ko Zuaitz-pean.

I Isabel Durango-ra joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermu-ko Iribilduaren Foru Legeari be ziñ emon eutsezan, eta erriaren bost-giltzak artuta, Durango-ko Santa Maria Eleizan amaitu eban ziñ egiteari.

Emendik aurrera eta nai-ta 1.526ko idatzita-ko Foru-Lege barriaren II gaiak alan eskatu, Bizkai-ra ez zan etorri Gaztela-ko erregerik ziñ egitera, goian esandoten lez, eskutitz-bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernika-ko Batzarrean irakurrita baiezten zana.

1.504an Azaroa-ren 26an, 53 urte euki ebazala Medina del Kanpo-n il zan Isabel. Eta Bizkaia-n bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernika-n Juana eta Felipe-ren jauntza baieztu zan.





## Taket-arteko ondorio labur-bat.

Isabel-en Andre-Jauntzan ikusten dogu, nai-ta denbora borrokatsuak izan, itzarmen bidez bata bestearen beartasunean, gure Foru-Legeak indartu egin zirala, Bizkaitarrak eta erregeak zentzun andiko leialtasunean jokatu ebelako.

Denbora iltzaille oneitan, Euskaldunak itzarmenekoak beti-lez izan ziran, eta ikusi dogun lez, Gaztelar erregeak euren larritasunagaitik, Bizkaitarren arremanakaz lotsa aundia euki bear ebela, oartuta egon zirala. Lurretik euren leialtasun-bidez laguntza aundia euki ebala eta ez gitxiago mariñel eta itsas-ontzi egilletasunean oso trebeak izan ziralako.

Emendik aurrera baiña, bolbora edo lerrauts-gintzaren<sup>(1)</sup> obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoi-gintzagaz, Gaztelar erregeak gero ta indar geiagagaz arrotuten asi-ta, eta bide batez

325ean Nizea-tik asmatuta etorten zan azpikerizko dogma-arauden mendekotasun orregaz, itzarmeneko ekandutik urruntzen joan ziran, edo ardura gitxiago eukiten bai beintzat.

Gaztelar gorteakoak maltzur-zitalkeri gogorrean asita, itzarmenaren zentzunezko aztarnak naastuten asi ziralako, nai-ta Euskaldunakaz oraindiño eta gero ikusiko dogun lez Austriatar guztiakaz VIIIn Fernando-rarte, emoneko ziñ-itzak lotsa aundian zaindu.

Emendik, Frantzia-n egin zan 1.789ko Iraultzara eltzen gara, eta ikusten dogun lez euskaldunak zazpi luraldetan murriztuta geratu giñan, baiña Nortasunaren Askatasunetik ezer galdu barik, Euskaldunen Aberria Euskadi dalako.

Eta emendik aurrera ikusten dogu, Europa-n nortzuk eta zeri asi ziran “Nazioa”ren izena aitatzen eta zer gure eben espainolak “Nacional katolicismo” orregaz.

**Atutxatar Paul**  
*Zornotzan 2.011n Epaillaren 15ean*

(1) Lerrauts-gintzaren = fabricaciòn de la polvora.

# Euskaldun barrientzat

## Zazpi utsak



## Sudoku

3	4				6		5
8		9	4	6			7
		8		3			
9		7		2			1
	7				3		
4		5		1			8
		6		4			
5		1	9	8			6
7	8				9		4

4	1	9	5	2	3	8	7	6
6	7	8	9	1	3	4	5	8
3	5	8	7	4	6	1	2	9
8	6	1	7	9	8	4	3	2
2	4	8	6	9	3	7	5	1
1	5	7	4	8	6	9	3	2
9	8	6	7	3	2	5	4	1
6	7	1	8	5	3	4	2	9
8	2	5	9	4	6	1	3	7
3	9	4	2	1	7	6	8	5

Ikasten



### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko .....diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

A man in a white shirt and white pants is captured in mid-air, splashing water. He is carrying a large, black and white rooster on his back. The background is a blurred crowd of spectators.

Anteron txamarrotia,  
Sinkarren bibotia  
aretxek ei dauko,  
ei dauko,  
preso tximinoia.

au dek, au dek,  
au dek umoria,  
kotsolatzeko, kotsolatzeko,  
euskaldun jendia

Kalian gora, kalian beera,  
kalian gora zezena.  
ai, ai, ai, ai  
kalian gora, kalian beera,  
kalian gora zezena.

Kalian gora, kalian beera,  
kalian gora, kalian beera,  
kalian gora, kalian beera,  
kalian gora zezena.